

BERRIGARA

3. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, apirilak 4

A close-up portrait of an elderly man with short, grey hair and glasses, wearing a brown sweater over a light blue collared shirt. He is looking directly at the camera with a serious expression. The background is a blurred green field.

Reyes Korkostegi

Hizketarako lagun



Fiat Marea zure esku 2.396.000 pta.tik aurrera.
Diesel bertsioetan, %7,5eko finantziazioa.
75, 100 eta 124 CVko Turbo Diesel motoreak.

FIAT

AUTOBEREZI

Antigua, 10 Antzuola



Alfa Romeo



**ALAI
GARAJEA**

IREKI BERRIA




Era guztietako konponketa-lanak.

Mekanika-Elektrizitatea.

Auto-salmenta: berriak zein erabilitakoak.

**Konponketek 10.000 km. edo 6 hilabeteko
garantia dute.**


**"Ford" Espezialitatea
Subkontratatuak:
txapa eta pintura.**



Urarte, 12 Bergara Tl. 76 22 96

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korrante alterno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 Telefonoa: (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
 48010 Bergara
 Tf: 945 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ELKARTUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Agustín Azkarate

Erredakzioa:

Agustín Mendibil
 Agostin Elkoroberezar

Argitaratzailea:

Elkartun

Argitaratzailea:

Agustín Romero

Argitaratzailea:

Agustín Elortza

Argitaratzailea:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

Argitaratzailea:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkoroberezar

Agustín Labaien

Argitaratzailea:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugalde

Agustín Azkarate

Argitaratzailea:

Agustín Angorri taldea

Argitaratzailea:

Agustín ale.

Argitaratzailea:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Argitaratzailea:

Agustín BERRIGARA

Argitaratzailea:

Agustín 30/91

Argitaratzailea:

Agustín 945-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

E S A N
D U T E

LUIS ABAJO

Kultur zinegotzia

- Zehaztuta al dago Pazkuetako programa?

- Datorren asterako guztiz amaituta izango dela espero dugu. Nobe-dadeak? Eguakitzean, maiatzaren 16an, Gozategiz Blai taldearen emaldia izango da (ikuski-zun honetan, besteak beste, Gozategi taldeak eta Edu Muruamendiarrak dantzariak hartzen dute parte); domekan, berriz, Zezenzaleak taldeak gonbidatuta, Azpeitiako Udal Musika Banda etorriko da txekorketako giroa alaitzera, ohizko rock eta camp dantzaldiak izango dira, argazki zaharren erakusketa, profesional eta afizionatuen pelota partiduak Frontoian, Jardunek antolatuta nahi duen gazte bazkaria, Euskadiko Dantza Askatuko Txa-



pelketa (ETBk eskeiniko duena)... Horrez gain, sorpresatxo bat ere izango da aurtengo Pazkuetan. Aurrekontua 11-12 milioi pezeta bitartekoa izango da.

- Nork egingo du jaietako kartela?

- Dani Laskurainek egingo du aurten programetako azalean joango den kartela, Beartek bere izena proposatu digu eta.

"Datorren astean zehaztuta izango da aurtengo Pazkuetako programa"

I T U R R I O N E T I K

Gorlako kantina eskuratzeko lau eskakizun aurkeztu dira

Udalak Gorlako kantina adjudikatzeko deitutako lehiaketara lau eskakizun aurkeztu dira. Martitzenean amaitu zen eskaerak egiteko epea eta datorren astean erabakiko da kantinaren ustiakuntza nori adjudikatzen zaion. Gorlako kantina iazko maiatzean inauguratu zen eta ordutik kantina martxan jartzeko Udalak egindako ahaleginak bertan behera geratu dira. Oraingoan, Udalak kantina ekipatzeko konpromezua hartu zuen eta aurrekoetan baino eskaera gehiago jaso dira. Bestalde, igerilekuetako taberna hartzeko eskakizun bakarra aurkeztu da eta beraz, ziurrenik, azkenaldian tabernaren ardura izan dutenek bertan jarraituko dute.

"Oso gustora ari naiz entrenatzen eta Eugiren aurka aukerak badituz. Partidua nekeza izango dela aitortzen dut, baina moral haundiarekin nago. Nagore eta Irazolari irabazi ondoren kunplitu dut banakako txapelketan. Baina horrek ez du esan nahi galtzera irtingo naizenik. Irabazteko topera jokatu beharko dut eta berak, aldiz, bere partidurik onena ez jokatzea beharrezkoa izango da"

AITOR ELKORO
 Pilotaria
 EL DIARIO VASCO

"Klown ikuskizunek urteekin irabazi egiten dute, ardoak bezala. Gainera gure taldeak ez du urtero obra berri bat estreinatzeko ohiturarik. Jendeak obra bat eskatzen jarraitzen duen neurrian, guk mantendu egiten dugu, eta *Molestias Clownicas*-ekin hori gertatzen da. Obrako une batzuetan jendeak buruarekin baietz esaten du"

VIRGINIA IMAZ
 Oihulari Klown taldekoa
 ARRASATE PRESS

**JERRY MAGUIRE**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**MUERTE EN GRANADA**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).



Zinea

▼▼ *Jerry Maguire* (**Tom Cruise**) SMI enpresako kirol ajenterik onenetakoa da. Dena primeran irtetzen zaio baina enpresaren hobekuntzarako lan bat egin ondoren lanetik botako dute. Hutsetik hasi beharko da berriz ere eta *Rod Tidwell* bigarren mailako kirolari bat eta *Dorothy* izeneko kontable bat izango ditu alboan... Oskarretan eta Urrezko Globoetan saritutako filmea.

▼▼ **Marcos Zurinaga** zuzendariak **Federico Garcia Lorca**ren inguruko filmea egin du, aktore ezagunen partaidetzarekin: **Andy Garcia** poetaren paperean, **Edward James Olmos** (*Lozano*), **Esai Morales** (*Ricardo*) edo **Jose Coronado** (*Nestor Gonzalez*). *Ricardok* hilabete eskas batean, 1936ko uztailean, bi lagun galduko ditu...

▼▼ *Vargas Blues Band* taldearen emanaldia iragarri da zapatu honetarako, gaueko 11etan Jam aretoan. Javier Vargas izen haundiko kitarrajolea da, eta besteak bsete, Flaco Jimenez, Raimundo Amador edota Carlos Santanarekin lan egin du. Sarerak 1.500 pta.tan jarriko dira salgai. Domekan, bestalde, *Inmaculate Fools* izango dira arratsaldeko 8etan eta eguenean, hilak 10, *TC10*.

Deiak

▼ **1964**an jaiotako bergararren afaria apirilaren 19an. Argibideak eta izen ematea Plazako kioskoan (Jose Antonio Luque) edo 76 29 99 eta 907 410 409 (Peli) telefonoetan.

▼ **Barrenkale**koen bazkaria izango da hil honen 19an San Martin plazan. Bazkaria 14:30etan izango da eta menua honako hau: hegazti salda, legatza albardatuta, solomoa oportoz sagar purearekin, San Markos tarta, txurreroaren kafea eta kopa, eta prezioa 3.500 pta. Interesa dutenek izena eman dezakete Biltokin, Dixulan, Intxortan, Lazkanon, Ollagorran, Onenan edota Sirimirin apirilaren 13a baino lehen.

▼ **Erakusketa.** Camino Mugerzaren margoak Nahikari tabernan.

Ogia

▼ **Domeka 6:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 4:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 5:** Estella.
- ▼ **Domeka 6:** Estella.
- ▼ **Astelehena 7:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 8:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 9:** Puy.
- ▼ **Eguena 10:** Guallar.

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak

GASTON Y DANIELA

Kruz Gallastegi, 9 ☎ 76 07 37

GORBEA

Miguel
Gimbert
Hernan

ARROZTEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen
kolokazioa eta
era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 TI/F 79 15 71

Karlos Galarraga

Pintore bergararren lana ikusgai Kultur Etxean


Karlos Galarraga joan zen urtean lizentziatu zen Arte Ederretan, Leioako Fakultatean. 95ean, Erasmus beka bati esker, Irlandan, Dublineko Arte Eskolan ikasi zuen. Orain, azkenaldian egindako lanaren emaitza erakutsiko du Kultur Etxeko erakustokian. Aipatutako oleo erakusketa gaurtik apirilaren 14ra arte izango da ikusgai.

- Nolako koadroak ekarri dituzu Kultur Etxera?

- Hogeit bat oleo dira denera eta, egia esan, zaila egiten zait nire estiloa definitzea: ez nago korriente definitu baten barruan sartuta baina esan daiteke nire lan gehienek linea geometrikoetan dutela oinarria. Eta ez da ikusten gauza garbirik, nahiz eta zenbait lanetan paisaiak somatzen diren. Nahiago dut ikusleek berariaiek esatea zer ikusten duten. Neurriari dagokionez, neurri diferenteko lanak dira, pare bat koadro 2x2 m.koak dira eta gaintzako guztiak txikiagoak.

- Noizkoak dira?

- Azkenaldian margo-



AITZIBER ARETXAGA

"Orain zapatu eta domekak aprobetxatzen ditut margotzeko".

tutakoak dira denak, zaharrenak ez dauka urtebete ere. Orain arte akrilikoak landu izan ditut baina azkenengo bolada honetan oleoak pintatzeari ekin diot, tela gainean margotutako lanak dira erakusketakoak. Koloreak? Grisak, urdin ilun samarrak erabiltzen ditut gehienbat.

- Non margotzen duzu? Zein da lanerako duzun metodoa?

- Orain Irizarren daukagun estudioan ari naiz pintatzen. Lehen egunero joateko ohitura neukan baina abendutik lanean ari naiz lantegi batean eta zapatu eta domekak aprobetxatzen ditut margotzeko. Ez daukat margotzeko

metodo zehatzik; normalean jasotzen dudan guttira filtotik pasatzen dut eta gero ideiak lantzen ditut. Paisaian, inguruan asko fijatzen naiz, baita beste pintoreen lanetan ere...

- Zein pintore gusztatzen zaizkizu?

- Sean Scully irlandarra (orain Bilboko Rekalde aretoan dagoena), Richter alemaniarra, Candaudap, Pello Alberdi ere bai...

- Erakusketetan saltzen da koadrorik?

- Ez, oso nekeza da. Horrelako erakusketak batik bat herrian zure lana erakustearren egiten dira, saltzeko ez dira egiten behintzat. Paisaiak beharbada hobeto saltzen dira.

- Pinturatik bizitzea zaila izango da beraz...

- Gustatuko litzaidake baina behin lanean hasiz gero oso zaila da pintura eta lana tartekatzea.

- Nola ikusten duzu Beart-en lana?

- Ondo, orain jende berria sartu da zuzendaritzan eta hasi gara mugitzen. Baditugu proiektu batzuk eskuartean: ikastaroak dibujo eta pintura ordenadore bidez egiteko e.a, baina lokal egoki baten beharrean gaude. Irizar txiki geratu zaigu.

"Esan daiteke nire lan gehienek linea geometrikoetan dutela oinarria"

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Arantzazu aldizkariaren zuzendariari

Frantziskotar Aita Elustondo jaunari: Epailleko Arantzazu artu eta, asieran zuk idatzitako "La paz justa del resucitado" irakurri ondoren, ziara ados nagola esatea nai dot.

Baña ondoren laugarren orrialdian, Arendui izenpetuta esaten dabenakin ez nago, eta ez gaude ados, naiz eta bere iritzia errespetatu, bergaratarontzako Igozondeko Agirretar Martin zalako Nagasakin il zutena.

Amabigarren orrialdean berriz, "San Martin de la Ascension, cuarto centenario de su martirio" idazki onetan, ain egoki goraiatzat ditzuzue, bergararok egin giñuen eta, egin zituen batez ere batzuk, etengabe murgilduta lanean, jaialdi zoragarri ura San Martinen omezez, berak merezita bezela, atera zedin, eta Arantzazuk eman dion garrantzia jaialdi oni, txalotzekoa da guretzat, naiz eta asieran, ipintzen dozuen (duan) zirikada zitaltsua, Beasainen jaio zala, ez izan, egokia idazkia orren barruan.

Bergarako ainbat eta ainbat taldek, egin zituen, lan ikaragarri arek, ez zituen, eta ez giñuzen egingo, San Martin gure-gurea dala sinistuko ez bagiu, baño, bene-benetan dizugu, eta dizut, ziara minberatu gaitxuala, ipiñi duzuen

(duan) zirikada zitaltsu orrek.

Lehenengo lerrotako itzetan, "La paz justa del resucitado", pake zale agertu, eta ondorengoak irakurri eta gero, badi-rudi sinisterik ez, nai duguna, eta, ez, nai dotena, frantziskotar batzuk, pake zale baño, gerra zale geiago ez ote diran, aspaldi onetan darabilkizuen jokabidea ikusita, erreke-erre San Martinen jaioterria Beasain dela, eta Loinaz gora eta bera.

Len ere baziran kondalari bikaiñak, bat eta bi baño, geiago, eta, ala bearrean, frantziskotarrak, Martzelo Ribadeneira, Frai Markos de Alkala, Inazio Omaetxeberria, abar eta, abar, Agirre eta Bergaran jaio zela, idatzi zutenak. Gezurtiak ote ziran? Iritzi hauek zapaltzekotan bazabiltzate, jarraitu, gure asmoak pake asmoak dira. Santu martiri bat bitarteko artu eta Euskal-Erriko bi erri aurka ipintzea ez ote da darabilkizuen jokabidea?, guri beintzat, biotza mingoztuta laga gaitxuzue, eta eliz gizonak izanik bi aldiz.


Arantzazu zale, eta bertara agertzen geranok, asko gera Bergaran, eta ondo badiriskiozu, idazki hau, Arantzazu aldizkarian agertzea, oso gogokoa izango genuke, naiz eta, bergaratarontzat bakarrik izan, orretara, eztabaidarik sortu ez dein.

Bide batez, jaso zazu gure, eta nere,

besarkada paketsu eta biotz-kor bat, danon artean Euskal-Erriak bear-bear duan benetako pakea lortu dezagun.

NATALIO JUARISTI

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Pantiri elkartasuna

Murtziako espetxean dagoen Xabier Oregi "Panti"ri elkartasuna gertutik adierazteko autobusa irtengo da Murtziara gaur gauean. Xabier Oregik 10 urte beteko ditu gaur gartzelan. Bestalde, 25 eguneko gose greba ere gaur amaituko du. 14 kilo galdu ditu egun hauetan, baina ez du osasun arazo larririk. "Panti" orain dela 15 urte erbestera zen Iparraldera eta 10 urte betetzen dira gaur, atxilotu eta Estatu Espainolera ekarri zutela.

Amaiera jakinik gabeko huelgan Algodonerako langileak

Algodonera eta Tavesako langileek amaiera jakinik bareko huelgan 14 egun bete dituzte gaur. Bi aste hauetan, Algodonera aurrean pikete informatiboak eta kalean zehar hainbat manifestazio eta kotxe karabana egin dituzte. Ostegunean, bestalde, prentsaurrekoa eman zuten Algodoneran enpresa komitekoek, hau da, huelga konbokatu duten ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuetakoa ordezkariek.



Hainbat protesta ekintza antolatuta dituzte Tavesako langileek.

Algodonerako langileek adierazi zuten, hiru urte daramatzate konbenioa sinatzeke. "Azken hiru urteotan enpresak irabazi haundiak izan ditu, baina langileok ez dugu soldata igoerarik izan eta eros abalmeneren %12,30 galdu dugu" adierazi zuten.

Langileek eskatzen dutena zera da: %4ko igoera finkoa aurtengo urtariletik, eta beste %4koa nominan finkatu gabeko pagoetan, baina urte amaieran guztira %8ko igoera, nominetan finko gera dadila; horrez gain, urtean 9 ordutako lan murrizketa.

Konbenioa zinatzeaz gain, enpresaren Biabilitate Plana negoziatzea ere eskatzen dute langileek. Azken urteetan en-

presa zuzendaritzarekin izan dituzten bileretan Bergarako lantegietan inbertsioak egiteko eskatu dutela adierazi zuten langileek eta dirurik inbertitu ez izana, plantilaren murrizketa eta irundegia ixteko zorian dagoela kritikatu zuten. "Azken urteetan ez dira soldata igo eta, bestalde, 1.200 eta 1.150 milioi pezetako irabaziak izan ditu enpresak 1995 eta 96ean. Hala ere, zabarkituak dauden makinaren ordez berriak ez dituzte jarri, inbertsiorik ez da egin, lan egoerak txarrera egin du eta egitura produktiboa ez da aldatu. Bergarako lantokien etorkizuna ziurtatzeko gauza ez da izan zuzendaritza,

eta sozio finantzieroak espekulazioan murgilduta ibili dira" esan zuten.

Valentzia eta Marruekoeko lantokiak enpresarentzat merkeagoak badira ere, Bergarakoak ere errentagarriak direla eta hainbat abantaila dituztela esan zuten: "Hemen kalitatea produzitzen da. Gainera, enpresa Bergarako lantokiez baliatzen da Aenor kalitate ziurtargiria ateratzeko".

Algodonera eta Tavesako langileek huelgarekin jarraitzeko asmoa dutela eta zuzendaritzarekin negoziatzen hasteko prest daudela adierazi zuten. Gaur arratsalderako kotxe karabana eta manifestazioa antolatuta dute.

HILDAKOAK

- Ignacio Eguren Bilbao**
Martxoak 21, 80 urte.
- Juana Otamendia Larrañaga**
Martxoak 21, 92 urte.
- Martin Linazisoro Lazpiur**
Martxoak 22, 55 urte.
- Abdon Juaristi Legorburu**
Martxoak 22, 48 urte.
- Joakin Altuna Arkauz**
Martxoak 22, 60 urte.
- Julio Azkargorta Kortabarria**
Martxoak 23, 84 urte.
- Juan Narvaez Moreno**
Martxoak 23, 78 urte.
- Maria Luz Gabriela Azkarretazabal**
Otxoa de Retana
Martxoak 23, 96 urte.
- Markos Larrañaga Aiausti**
Martxoak 26, 70 urte.
- Isidra Galarreta Laskurain**
Martxoak 29, 90 urte.

JAIOTAKOAK

- Danel Santamaria Sanpietro**
Martxoak 20.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

Emakumea eta aisialdia

Udaleko Ongizateko Sailak eta Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentruak, emakumeei zuzendutako "Emakumea eta aisialdia" izenburuko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa apirilaren 17an hasi eta maiatzaren 29an bukatuko da. Ostegunetan izango da arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean Irizar Jauregiko 2. pisuan eta zazpi saio izango dira guztira. Izena emateko epea datorren ostegunean, hilak 10, bukatuko da eta plaza mugatuak direnez, izena ematen duten lehen 20ak onartuko dira. Prezioa 500 pezetakoa da eta izena Udaletxeko Ongizate Sailean eman daiteke.

Elkar-entzuketari buruzko hitzaldia

Juan Gabriel Urriategik elkar-entzuketari buruzko hitzaldia emango du Antzuolako Udaletxeko Pleno Aretoan datorren astelehenean, hilak 7, arratsaldeko 7etan. Norberagan konfidantza nola berreskuratu, gizartean dagoen nahasmena nola ulertu, besteengana errezago nola gerturatu eta beste hainbat kezkarri nola erantzun esplikatu du Juan Gabriel Urriategik.

Txikizioen salaketa

Udal Gobernu Batzordeak hainbat kirol guneetan egindako txikizioak "publikoki salatu eta herritarrei kolaborazioa eskatzea" proposatu du. Gogoratuko duzuenek, ezezagun batzuek hainbat txikizio egin zituzten joan zen hilean Labegaraieta kiroldegiaren kanpoaldean, Miguel Altuna institutuko patioko sarean eta Elorregiko pilotalekuan.



Jakinmina sortu du Frontoian jarri den turismorako informazio puntu interaktiboak.

Turista asko ibili da Aste Santuko egunetan Bergaran

Turismo Bulegoa domekara arte zabalik izango da

Ostegun Santu egunetik astelehenera bitartean 170 kontsulta jaso dira Turismo Bulegoan. Frantziar, belgiar, katalandar, donostiar eta bilbotar asko ibili da; Murtzia eta Valentziatik etorritakoak ere izan dira. Datu aipagarria da Aste Santuko bost egun horietan 24 kanpotarrek lo egin duela Bergaran, eta bertan bazkaldu dutenak ere asko izan dira. "Eguraldiak lagundu du eta jende askok jan eta lo egin du Bergaran. Gainera oso inpresio ona eraman dute kanpotarrek, ondo atenditu zaielako eta asko gustatu zaielako herria" esan digu Xabier Larrañaga museologoak. Herriko ondarea eta etxeak ezagutzeko antolatzen diren bisita gidatuen ostean inkesta antzeko bat egiten zaie

turistei eta bertan jasotako erantzunen arabera, asko gustatu zaie herria eta bere inguruak. Gehien baloratzen dena bisita gidatuak doan izaten direla da.

Turismo Bulegoa Aste Santu aurretik zabaldu zen eta domekara arte zabalik izango da. Gogoratu behar da egunero gutxienez bi bisita gidatu antolatzen direla, 12:30etan eta 17:30etan, eta norbaitek hala eskatu eta taldetxo bat osatzen bada, ordutegi horietatik kanpo ere antolatzen dira. Bergararrek ere badute bisita gidatuetan parte hartzeko aukera eta, bide batez, herriko jauregi, etxe, kale edota parrokia ederak ikusi eta hauen historia ezagutu. Beraz, interesa izanez gero, igandera arte dago aukera.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Udalaren eta gazte eta kultur taldeen arteko beste bilera batzuk egingo dira

Udaleko eta herriko ikastetxeetako eta gazte eta kultur taldeetako ordezkariak, Aste Santu aurretik egin zuten gazteentzako lokalen inguruko bilerak jarraipena izango du hurrengo asteetan. Izan ere, lehen bileran, Udalaren eta herriko gazte eta kultur taldeen iritzia entzun ondoren ez baitzen akordiorik lortu eta beste bilera bat antolatzekotan geratu ziren. Biler horretan talde bakoitzaren beharrak jasoko dira idatziz eta ondoren, Udalak premia horiei erantzuteko egin beharrekoak egingo die.

Udaleko ordezkariak Victoriano Gallastegi alkatea, Luis Abajo kultura zinegotzia, Rufina Olasagasti kultura gestorea eta Mikel Eguren HBko zinegotzia izan ziren. Gazte taldeen artean, ostera, Txapa Irratikoak, Aske taldekoak, Aranzadi, Miguel Altuna eta Ipintza ikastetxeetakoak, Jarraikoak, rock taldeetakoak

eta Gazte Asanbladakoak, besteak beste. Gazte Asanbladakoek pankarta bat zabaldu zuten bileraren hasieran. Bertan, bile-retatik eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko eskatzen zioten Udalari. Horren ondorioz, eztabaidatxo bat sortu zen Gazte Asanbladako ordezkariak eta alkatearen artean. Gazteentzako lokalen faltaz gain, etxebizitza eta langabeziaren arazoak ere aztertu ziren bileran.

Bileraren helburu nagusia gazteentzako bilgune bat sortzea bada ere, Udalaren asmoa lehenbailehen Gazte Batzordea osatzea da. Batzorde horren zeregina herriko gazteek dituzten beharrei eta arazoari irtenbidea ematea izango da. Horretarako gazteen premiak zeintzuk diren ezagutu eta irtenbideak topatzeko ze baliabide

dauden aztertu beharko da.

Udalaren lokalen egoera aztertu

Bestalde, Udalak sortu nahi duen gazteen batzordearen eraginkortasuna zalantzan jarri zuten gazte batzuz; beste batzuz, berriz, batzordea une honetan geldirik dagoen egoerari irtenbidea emateko baliagarria izan daitekeela adierazi zuten. Gazte eta kultur taldeei lokalak banatzerako orduan Uda-

lak erabiltzen dituen irizpideei buruz eta lokalen egoerari buruz ere berba egin zen. Lokal batzuz egoera kaskarrean daudela eta beste batzuz behar den moduan erabiltzen ez direla adierazi zuten gazteek. Lokal horiek ze egoeratan dauden aztertuko dela, egin beharreko konponketak egin ondoren, baldintza egokietan jarriko direla, eta taldeen eskakizunak baloratu eta gero lokalen banaketa berria egingo dela erantzun zuten alkateak.



Gazteen eta Udal ordezkariak arteko beste bilera batzuk egingo dira. ARTXIBOA.

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

MUJIKA



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8

☎ 76 28 67

BERGARA

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Aberri Eguna

Udal pilotalekua tope-raino bete zen Pazku domekan Eusko Alderdi Jeltzaleak antolatutako Aberri Eguneko ekitaldi politikoan. Asier Aranbarri EGIko ordezkaria, Joseba Egibar GBBko presidentea eta BBBko bozerama-lea, eta Jose Antonio Ardanza lehendakaria izan ziren hizlari. Victoriano Gallastegi alkateak ongi etorria eman zien bertar-tuei eta 1965ean Bergaran ospatutako Aberri Eguna ekarri zuen gogora. Bestalde, Pilar Murgoi-tiok, alderdiko bergarar zaharrenak, plaka oroigarria jaso eta ikurriña altxatu zuen.




J.M. PEMAN

Besteak beste, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua, Joseba Leizaola Legebiltzarreko presidentea, Josu Jon Imaz eurodiputatua, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Xabier Albistur

parlamentariak eta Joxean Urbiola NBBko presidentea izan ziren. Ekitaldi politikoaren ostean herri bazkaria izan zen frontoian bertan eta bazkaloste-an, trikitilariekin daltzaldia.

Hildako ugari

Aste Santuaren atarikoak egun beltzak izan ziren bergararrontzat, egun gutxiren barruan herritar ezagun ugari hil baitzen. Astebukaera berean zortzi bergarar hil ziren: martxoaren 21ean, Ignacia Eguren (80 urte) eta Juana Otamendia (92); hurrengo egunean, Erramu Zapatu Egunean, ostera, Martin Linazisoro (55), Abdon Juaristi pintorea (48) eta Joakin Altuna (60), hirurak oso ezagunak eta oraindik gazteak; Martin eta Abdon (argazkian) minbiziak jota eta Joakin bihotzekoak emanda. Domekan, azkenik, Julio Azkargorta (84), Maria Luz Gabriela Azkarretazabal (96) eta Juan Narvaez (78) hil ziren. Azken hau, ezbehar baten ondorioz ohean zegoela, logelak su hartu ondoren.



Elkororen aldeko manifestazioa

Jose Luis Elkorori eta espetxean zein atzerrian dauden HBko beste mahaikideei elkartasuna adierazteko Bergarako HBk deitutako manifestazioan ehundaka lagunek parte hartu zuten Erramu Zapatu egunean. Eguerdiko ordu batean San Martin plazatik irten eta herriko kaleak zeharkatu ondoren, ekitalditxo bat izan zen San Martin plazan. Bergarako HBko kide batek, HBko mahaikideen egoera salatu eta Alternatiba Demokratikoa herrian zabaltzen jarraituko zutela adierazi zuen. Bestalde, Dinamarkan dagoen Jose Luis Elkorok bidalitako hitzak entzun



ahal izan ziren megafoniaren bitartez. Elkorok, Mahai gainean dagoen bake proposamen bakarra zabaltzeagatik atzerritatua dagoela ekarri zuen gogora eta aurrerantzean ere orain arte bezala, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatuko zuela esan zuen. Manifestazioan zehar ez zen istilurik izan.

ID INFORMATICA
DELTA

Ordenadore eta inprimagailuen salmenta eta konponketa

kontsumibleak:

disketeak, filtroak, liburuak, tinta-kartutxoak, zorroak...

multimedia:


soinu-tarjetak, bozgorailuak, CD-ROMak, jokoak, enziklopediak...

enprestarako zerbitzuak:

sare-komunikazioak, instalazioak, segurtasun-datuak...

Artekalea, 15 behea Bergara TI. 76 30 57

Denok batera presoak Euskal Herrira



Jubilatua

INAXIO MARI BASTERRA




Ikaslea

LEIRE IBARZABAL




Ikaslea

GAIZKA JAINAGA



Langilea

JESUS KORTABARRIA



Jubilatua

LEONARDO LASKURAIN



Langilea

M. TERESA LETURIA


Beste hauek ere
euren atxikimendua
adierazi dute:

J. AGUSTIN ARANBERRI
LOREA ARREGI
M. ISABEL ZEZIAGA
ANDONI ETXEARRIA
AINZANE GARDOKI
J. LUIS LIZARRALDE
ELSA MANSO
J. KARLOS MARQUEZ
ALEX OSTOLAZA
FATIMA VERA

Goian sinatu dugunok geure egiten dugu ondorengo eskaera:

1. Nahi duten euskal preso guztiak, berehala Euskal Herrira ekarriak izan daitezela.
2. Gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarrizko eskubideen aplikazio integrala esijitzen dugu: gaiso sendaezinak eta kondenaren 3/4 bete dutenak kalera atera.

**Zuk ere, nahi baduzu,
adierazi zure atxikimendua.
Apirilean zehar, larunbat goizetan,
sinadurak biltzen egongo gara plazan.**



ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN


espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxa: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!




Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Reyes Korkostegi

Oñatiko alkate ohia eta euskal gaietan zaletua

Erretzaile amorratua, ke artean, Oñatiko alkate izan zeneko kontuak oroimen ezinhobeaz gogora ekartzen ditu Reyes Korkostegik. Oñatiko Urbieta baserrian jaioa, hainbat enpresatan administradore lanak bete zituen eta, horrez gain, 22 urtez Oñatiko alkatetzan izan zen. Gaur egun, 80 urterekin, oraindik ere gaztetako jakingura azaltzen du gai ezberdinen aurrean.



- Nola heldu zinen Oñatiko alkate izatera?

- Sekula ez zitzaidan burutik pasatu alkatea izatea, ni gehiago izan naizelako isilean lan egitekoa. Nire aurretik Vicente Ugarte nire lagun bat egon zen alkate 12 urtetan baina harek karlistak beti bere kontra izan zituen, liberala, "beltza" ikusten zutelako; ufala datorrenean uraren aurka ezin da ezer egin eta Vicente dimisioa aurkeztu zuen. Eta gobernadoreak ordezkoaren izena eskatu zionean nire izena eman zuen. Ni urte haietan ziklo-krosetako nazioarteko txapelketa antolatzen ari

nintzen eta gobernadorearekin milaka jestio egin behar izaten zirenez ho-

rrela hasi nintzen. Eta 22 urte iraun nuen...

- Franco ere ezagutu

“Sekula ez zitzaidan burutik pasatu Oñatiko alkate izatea. Eta 22 urte iraun nuen...”

omen zenuen...

- Jestio asko egiteko (1953ko Oñatiko Munduko Ziklo Kros Txapelketa, Arantzazuko errepideko arazoak, etabar) Franco-rekin bildu behar izan genuen, bai Madrilan eta Donostian ere bai. Entzun eta isildu egiten zuen harek, oso hotza zen Franco. Baina gurekin tratua izan zuen, ez genuen arazorik izan. Behin, ordago bat botatzeko garaia zela ikusi nuen eta autodeterminazioa eman behar zigula esan nion baina hura ezer esan gabe geratu zen. Igual beste batek esan balu kartzelara bialduko luke... Ni egiarekin edozein lekutara joan izan naiz beti, gezurrekin inora... Eta bizi guztian gauza txarrenen kontra altxatu naiz, injustiziak, gerran izandako fusilamenduak eta horrelakoen kontra.

- Alkate izan zineneko garaian egindako lanetatik zer destakatuko zenuke?

- Gauza asko dago, baina herriaren aurrerapenerako berebiziko garrantzia izan zuen institutuak eta zaharren egoitzak. Gainera inolako la-

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57


P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



"Beti ere nire buruari ea ahalegin denak egin ditudan galdetzen diot. Horrekin kobformatzen naiz".

guntasunik gabe egin genituen, orduan ez zegoen dirurik eta. Guzti hori mirari bat izan da niretzat. Dena diru barik hasi ginen egiten, zorrek hasitako lanak izan ziren. Zelan egin genituen? Saiatuz eta gogor lan eginez, eskean ibilita, neu ere etxerik etxe joaten nintzen diru eske... Penarik? Bueno, egiteke geratu ziren proiektuen artean Mankomunitaterako hiltegi egoki bat eta Hirigintzako Bigarren Plan Orokorra aipatuko nituzke, baina edozer gauzatan nire buruari galdetzen diot ea ahalegin denak egin ditudan eta horrekin konfor-

matzen naiz, ez daukat inolako traumarik ordutik.

- Nazioarteko Artzai Txakurren Lehiaketa ere zure garaian hasi zen ospatzen?

- Historia luzea da hori. 1932 urtearen inguruan Australiako artzaintzari buruzko dokumental bat ikusi nuen eta txundituta geratu nintzen txakurrek egiten zuten lanarekin. Hura erakustea nahi nuen baina lagunei komenta-

tzean ia ia barre egiten zidaten. Eta horrelakoetan ez badaukazu ekiporik alboan zaila da aurrera egitea. Sermoiekin gertatzen den moduan, gauza ederrak esan bai baina entzulegorik ez badago... Gerra etorri zen eta atzeratu behar izan genuen proiektu hori. Munduko Ziklo Kros Txapelketa amaitu zenean zera esan nien, bi arantza nituela: kanpo futboleko belodromoa egitea bata eta txakurren

lehiaketa bestea. Abadeak zorrotzat hartu ninduen baina aurrera ateragenuen txapelketa eta arrakasta haundia izan zuen.

- Esaten dutenez, Oñatiko ondarea mantentzeko ere gogor borrokatu behar izan zenuen garai batean...

- Norberak herria maitate duenean mutikotatik ikusi dituen gauzak mantendu nahi izaten ditu. San Miguel eliza, Unibertsitateko artisonauak, klaustroa eta gure ondareko beste hainbat elementu zeharo hondatuta zeuden garai batean. Ezin sinistekoa zen eta hura konpontzeko, abadea edo herria beraren kontra egin behar izan nuen askotan, jendeak ez zuen ulertzen hainbeste urtetan obrak jasatea eta dena nire erantzunkizunpean egin zen, hori bai, Apezpikua-ren baimenarekin.

- Eta orain, nola ikusten duzu Oñatin edo Bergaran turismoa erakartzeko egiten diren ahaleginak?

- Ondo ikusten dut, harritzen nauena zera da: norberaren herria ezagutu gabe, eskura dauden gauzak ezagutu gabe kanpora alde egiten duen jendea. Jendea ateratzen denean ibili bai baina

“Oñatiko alkatea izan nintzen garaian proiektu asko dirurik gabe hasten ginen, zorretan. Neu ere etxerik etxe joaten nintzen diru eske”

MAHER
 Biltegiak L.E.
 Oihal etxea
 Bidekurutzeta, 29
 ☎ 76 22 90 - 76 26 75

GURIA
Taberna
 Bidekurutzeta, 5
 ☎ 76 20 34

“Ni oñatiarra naiz okela, hezur eta arima eta bergararra consorte eta “con suerte”. Niretzako Bergara pake lekua izan da, irla bat”

ikusi eta hausnartu, gutxi. Baina lehenengo ahal bada behintzat norberaren herria ezagutu behar da. Eta hori bai, dotrina ikasi baino lehen gizalegez jokatu beharra dago; lehenbizi ahal den gutxien zikindu, gero garbitu.

- 1976an Oñatiko alkatetza utzi zenuen. Zergatik?

- Biolentzia asuntua hasita zegoen orduan eta Pertur hil zutenean, Arantzazuko Amabirjinaren egunean batzar urjente bat eskatu zidaten jaiak egin edo ez egin erabakitzeko. Ni jaien aldekoa izan naiz beti eta giro hura ez nuen atsegin, dimitudu egin nuen. Baina ni ez naiz sekula politikoa izan, politika ondo administratzeko artea dela uste dut, besterik ez. Politikan ez dut sekula karreerarik egin; mutikotan ere Oñatiko Circulo Carlista delakoan irratia entzuten egoten ginen, Paulino Uzkudunen konbateak etabar eta handik ere “por rebelde” despatxatu ninduten...

- Saltsa guztietan ibilitakoa zara.

- Kirola, folklorea, mendia edo espeleologia interesatu izan zaizkit beti. Espelologia egiten hasi nintzen garaian ere ez

zuen inork egiten eta Juan San Martin eta biok Gesaltzan ibiltzen ginen. Kobazulotan asko ibili izan naiz, Aranzadi Zientzia Elkartearen sorkuntzan ere hartu nuen parte... Aita Barandiaran? Orduan erbesteratua zegoen Frantzian, gero etorri zenean tratua haundia izan nuen berarekin. Oraindik ere bera zaindu zuen bilobarekin egoten naiz noizean behin...

- 1948tik Bergaran bizi zara. Oñatiarra ala


bergararra sentitzen zara?

- Ni oñatiarra naiz okela, hezur eta arima eta bergararra consorte eta “con suerte”. Niretzako Bergara pake lekua izan da, irla bat. Nire aitaginarrebak esaten zuen moduan “Pueblo pequeño, infierno grande” eta horretan gainera Oñati espeziala izan da. Hainbat mendetan kondearen azpian egon da eta errezelo haundia egon da beti. Eta hori ezin da egun batetik

bestera aldatu, nahiz eta gauzak asko aldatu diren. Baina Bergarari oso eskertuta nago ni.

- Nola ikusten duzu Euskal Herriko gaur egungo egoera?

- Gaizki. Gorrotoa zabaldu da, bai? Eta gorrotoa zaila da desagertzea. Ez dut uste nik pakea ezagutuko dudarik. Gizaldi bat gutxienez beharko da pakea heltzeko. Ondo jokatu den ala ez den jokatu? Bakoitzak bere alde egiten du eta dena emanda ere (autonomia, autodeterminazioa edo dena dela); artean ere ez dut uste pakerik izango genukeenik. Etorkizuna ilun ikusten dut.



Reyesek 80 urte ditu eta gaur egun denbora gehiena andrea zaintzen ematen du.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Zer egiten duzu astebukaeretan? Ondo aprobetxatzen duzu?



Anjel Mujika

Ahal dudan guztietan mendira joateko ohitura daukat eta bestela ortutxoan lanean. Niri asteburua oso motza egiten zait, ondo aprobetxatzen dut.




Maria Dolores Arizabaleta

Gehienetan mendira joaten naiz pasiatzera, kalean ere bueltatxo bat ematen dut..., Bergaran ibiltzen naiz, negu partean behintzat. Gustora pasatzen dut astebukaera.



Jesus Garcia

Iruñeara joaten naiz, neska-laguna han daukat eta. Mendira joaten gara, bueltatxo bat gauean, zinemara... Astebukaeretan trankil ibiltzea gustatzen zait.



Iñaki Alonso

Zapatu arratsaldean Elgoibarko diskoteka batera joaten gara eta gero, domekan, edo ikasi edo korrika egitera joaten naiz. Ondo pasatzen dut astebukaera.



Esperanza Velasco

Etxean egon, paseotxo bat eman, kafetxo bat hartu... Gizonari kirolak ikustea asko gustatzen zaio eta etxean egoteko ohitura daukagu.



Nerea Zurutuza

Lagunekin egon, jolastokira joan eta horrelakoak... Gazteendako lokal bat izango bagenu hobeto pasatuko genuke.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29



TB digitalaren aginduak

Hiru hilabete badira Telebista Digitalaren tirabirak komunikabideetan agertzen zaizkigula. Telebista modu honek zer eskainiko digun geure buruari galdetzen diogun bitartean, hainbat enpresen artean sortutako plataforma-buruek (PRISA eta TELEFONICA) eskuak igurzten dabilta aterako dituzten etekinak imajinatuz. Hori dela eta, eskaintzarik produktiboena nork aterako duen borrokan daude.

50eko hamarkadan jadanik EEBBtan honen aitona izan zitekeen asmakizun bat jarri zuten martxan. Etxeko telebista zinema ordaindua ikusteko aukera ematen zuen, filmea aurrera joan ahala, telebistaren ondoan zegoen kutxa erregizatzaile antzeko baten txanponak sartzen jardun behar zen. Baina hura ez zen errentagarri gertatu eta bertan behera utzi zuten proiektua.

Orain, teknologia berriak garatu direnez "etorkizuneko telebista" eskaintzen digute. Kanal aniztasuna izango da beren eskaintzarik azpimarragarriena, kanal tematikoak gehienbat. Zinema eta kirol ikuskizunak omen dira gai nagusiak. Baina noski, lehia horretan hautsa harrotu duena futbola izan da, berau baita errentagarritasun portzentai bat ziurtatzen duen altxortxo.

Beraz, egitasmo hau errentagarritasunari begira eratu dela dirudi, produktibitatea arau den gizarte honetan. Eta orain arte izan ditugun kanalekin egiaztatuta gelditu den bezala, honek ez du inondik ere kalitaterik ziurtatzen. Eskaintza izugarria da, baina oraindik eskaria ikusi beharko. Azken finean, hartzaileen esku dago kalitate hori zer den eta nahi duen esatea.

Amaia ALBERDI



Beste errege-ezkontza bat

Pasa den uztailan Atlantan elkar ezagutu zutela diote, Bartzelonan elkartu eta orain hor dabilta Katalunia aldean "bai, nahi dut" esateko monasterio baten bila. Neskak 31 urte, infanta; mutilak 29, kirolzalea eta gizpuzkoarra, biak altuak.

Ustekabea?, ba, ez zatekeen arraroa izango Isabel Gemiok egiten duen programan horren berri ematea, denok batera eta ados jarrita negar egiteko; ez dakidana da pozez ala etsipenez negar egingo genukeen. Baina, hemen gailtza denok, Infantaz eta Urdangarinez berriketan, ezkontza halakoa edo bestelakoa izango ote den esamesetan, berri hori baieztatu edo ezeztatuko ote duten zain... Eta azken finean, askoz koherenteagoa litzateke, behingoz, errege-familiak gizarte honetan duen papera eztabaidatuko bagenu; izan ere, ezin dugu ahaztu ordaindu, denon artean ordaintzen diegula; Felipe printzeak bere "laguna", Gigi Haward, bisitatzeraz Estatu Batuetara egin duen ihesalditxo ere ordaindu dugun moduan.

Benetako ezustekoa, baina, Julio Angitak, besteak beste, monarkia bera zalantzan jartzen duenean, eta estatu osoa harritu eta ikarutzen denean.

Nolanahita ere, zorionak Urdangarini eta goza dezala, ahal badu.

Marta MORAL

IKASTARO INTENTSIBOAK

INGELES FRANTSES ALEMANA

Apirilaren 21etik ekainaren 21era.

- BI HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU T^{EDN}
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

**HONEZ GAIN BESTE
HAINBAT IKASTARO**



INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87

MATRIKULA ZABALIK!!

■ Hala Madrid!!

Real Madrid futbol taldearen herriko zaletu talde batek **peña** bat osatzeko lehen urratsak eman ditu dagoeneko. Aste Santua baino lehen Kultur Etxean egindako bileran **45 lagun** izan ziren eta **apirilaren 30era arte izena emateko epea** zabalik izango dute (interesatuak Plazako kioskora jo dezakete). Era berean, zuzendaritzako karguak izendatu zituzten: presidentea Piti Unamuno izango da, presidenteordea Bixente Unamuno, idazkariak Jesus eta Luis Jimenez eta bokalak,



berriaz, Rufino Muñoz, Manuel Cid eta Fernando Gomez. Estatutuak onartu ondoren, peña maiatzerako erabakia izango dela espero dute. Urtean 4.000 pezetako kuota ordaindu beharko dute (horietatik 3.000 Real Madriderik ezartzen dien kuotagatik) eta **lehen irteera hurrengo denboraldian** egiteko asmoa daukate.



AITZIBER ARETXAGA

■ Txorimalo dotoreak Erramu Zapatu eguzkitsu eta jendetsuan

Aurreko edizioetan bezala, **Erramu Zapatuko feriak** ikusmin haundia sortu zuen herritarren artean. Eguraldiak lagunduta, ehundaka herritar izan ziren baserriko produktuak, animaliak, makineria eta bestelako salmentapostuak ikusten. Kalitate oneko 160 bat abelburu aurkeztu zituzten inguruko baserritarrek. Bestalde, **Txorimalo lehiaketara** hamasei talde aurkeztu ziren. 14 urtetik beherakoen artean "**Aske bi**" izeneko taldeak irabazi zuen, 14 urtetik 65 urtera bitartekoen artean **Iñigo Errastiren taldea** izan zen onena epaimahaiaren iritziz eta, azkenik, 65 urtetik gorakoetan **Mizpirualde Egoitzako taldeak** irabazi zuen. **Esaldi onenaren saria Aritz Alustizaren taldeak** eskuratu zuen, "**Haragia euskara da eta gu bere harakinak**" esaldiarekin.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

PANA DE ROKUA
IZATETXEAL
Kontxi Idigoras
Asteburuetan bertako babak eta sahieskia
SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



■ **Kitarra ikastaroa**

Joan zen martxoaren 22an amaiera eman zitzaion **Jarduneko Gazte Taldeak** antolatutako **kitarra ikastaroari**. Urtarriletik martxora arte **34 ikasle** aritu dira zapatuero, 3retatik 5etara, Kartzelan izandako klaseetan.

Irakasleak Domentx Uzin eta Olaia Ramos izan dira eta ikasle guztiek maila ona erakutsi dutenez, ea emanaldiren bat eskeintzen diguten...

■ **Zilarrezko eztaiak**



Bergarako Ipintza Institutuak bere sorreraren **zilarrezko eztaiak** ospatu zituen martxoaren 22an. Ekitaldian, besteak beste, Eneko Oregi Hezkuntza sailburuordea, Victoriano

Gallastegi alkatea, Luis Abajo kultur zinegotzia, Maria Luisa Berriotxo Ipintzako zuzendaria edo Javier Amor Gurasoen Elkarteko presidentea izan ziren. Areto Nagusian Ipintzako historiari errepasoa eman ondoren, **Musika Eskolako kamara-taldeak** hainbat pieza eskeini zituen. Jarraian, **plaka bati** estalkia kendu zitzaion institutuko sarreran, **Xamatzeko dantzarien** laguntzaz. Era berean, bertaratuek **Imanol Iriagaraik** 1972tik 1985era bitartean ateratako argazkiak ikusteko aukera izan zuten, garai zaharrak gogoratu. Ondoren, Institutuan lanean izan diren 100 bat irakaslek bazkaria egin zuten Lasa jatetxean. Ipintza Institutuak zilarrezko eztaiak ospatzeko beste hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa dauka.



Zertan dihardute ba?



Felix Barrocal BKEko errejional bigarren mailako futbol taldearen entrenatzaile berria dugu, Jabier Iturbe ordezkatur. Felixen aginduetara taldeak hiru partidu jokatu ditu dagoeneko igoera fasean: Bosco Zaleak taldearen aurka (0 eta 3 galdu zuten Ipintzan); Irunen, Landetxaren aurka (5 eta 1) eta azken partiduan, berriz, 3 eta 2 irabazi zioten Urki taldeari. Sailkapenean 4. postuan dira eta Felixen ustez oraindik ere igoera lortu dezakete; *“nik taldea ondo ikusten dut, jokalaria gebienak ezagutzen ditut eta gorago egoteko maila badaukagu”*.

igor eta Txomin
 Pintura orokorrean.
 Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
 Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.
 ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Mikel Lezeta

Orain 10 bat urte bere kabuz lanean hasi zen Mikel Lezeta, eskapareak, bulegoak, etxeak edo tabernak garbitzen. Herrian eskilara eta kotxearekin alde batetik bestera ikus dezakegu. 26 urterekin, ezkondata dago.

- Zelan hasi zinen lan honetan?
- Lagun aleman batek komentatu eta ideia ona zela pentsatu nuen.
- Egunean, zenbat eskaparete garbitzen dituzu?
- Hamar bat.
- Garbitzeko metodorik onena?
- Eskumuturreko joko ona izatea... (barre). Ura eta jaboia nahiko dira.
- Txikitan kristal asko apurtu zenituen?
- Ez.
- Laneko gauzarik onena?
- Ordutegia, nire erritmora nabilela.
- Eta txarrena?
- Bezero batzuk oso exijenteak direla.
- Etxeko lanak egiten dituzu?
- Bai.
- Zenbat diru eramaten duzu poltsikoan?
- 2.000 pezeta.
- Andreari egindako azken oparia?
- Hainbeste dira... Perfume bat.



“Alemaniako lagun batek komentatu zidan garbiketa enpresarena eta gustatu egin zitzaidan. Andreari opariak egitea gustatzen zait. Argazkilaritza atsegin dut”

- Jendearengan gehien apreziatzen duzuna?
- Zintzotasuna, zuzentasuna.
- Zure bertute bat?
- Irekia eta zuzena naizela.
- Eta defektu bat?
- Piskat burugogorra naizela.
- Mania bat?
- Etxean oinutsik ibiltzea.
- Zodiakoko zein zeinutakoa zara?
- Ba, ez dakit.
- Sukaldari ona al zara?
- Bai, Hotel Lasan *pintxe* egon nintzen...
- Janaririk gustokoena?
- Mariskoa.
- Eta gutxien gustatzen zaizuna?
- Tomatea, entsaladakoa.
- Edari bat?
- Txanpana.
- Miresten duzun pertsona bat?
- Jesukristo.
- Oroitzapen on bat?
- Mutikotako urteak.
- Eta txar bat?
- Motorrarekin izan nuen istripua.
- Kirolrik egiten duzu?
- Bai, futbola eta skia.
- Hobbyrik?
- Argazkilaritza eta bidaiatzea.
- Asteburuetan zer egiten duzu?
- Deskantsatu, txakurrarekin pasiatu...
- Gizartean zerbait aldatuko zenuke?
- Hainbeste gauza daude... Berdintasuna eta tolerantzia gehiago botatzen ditut faltan.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

Biko

BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tl. 76 71 19

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 41 38.

Korredore bizikleta salgai. ☎ 76 38 74.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Antzuolan pisua eta gara-
jea salgai. ☎ 76 62 15.

Garajea alokatzen da
Ibargarain. ☎ 76 16 38.

Lada Niva kotxea salgai.
Egoera onean. ☎ 76 02 31.

Etxeko lanak egiteko nes-
ka behar da. ☎ 76 91 30.

Arrasaten karabanenda-
ko lokalak alokairuan.
☎ 76 38 26.

Garajeak salgai Torrekuan
eta Espaloian. ☎ 76 33 88.

Graduatutako betaurre-
koak galdu ditut. ☎ 76 16 38.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

Txirindulari bizikleta sal-
gai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Garajea salgai edo alokai-
ruan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

DENETARIK

Pisua salgai Donostian,
Amaran. ☎ 76 31 79.

Suzuki Samurai kotxea
(SS-AF) salgai. ☎ 76 44 53.

Akuariuma salgai. Egoe-
ra onean. ☎ 76 33 48.

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Atiko amueblatua salgai.
☎ 76 47 27.

Aulki ergonomikoa salgai.
5.000 pezeta. ☎ 76 08 92.

Logelako altzari berriak
salgai. ☎ 76 59 84.

Zaharrak zaindu edo
etxeko lanak egingo nituz-
ke orduka. ☎ 76 04 57.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 18 46.

Txakurrentzako erre-
molkea behar dut. Prezio
onean. ☎ 76 56 05.

Opel Ascona 1.600 GLS
kotxea salgai. SS-V, 86 mi-
la kilometro. ☎ 76 57 55.

Batxilergo teknologikoko
(Lehen maila) elektronika ira-
kaslea behar da. ☎ 76 39 15.

Garajea salgai San Lo-
rentzon. ☎ 76 58 28.

Citroen Visa kotxea
egoera onean salgai.
80.000 Km. ☎ 76 05 37.

Mendiko bizikleta (nes-
kena) salgai. ☎ 76 46 90.

Neska euskalduna be-
har da arratsaldez haurrak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. ☎ 76 30 37.

Pisu amueblatua salgai
Mugertza kalean, 3. zenba-
kian. ☎ 76 53 79.

Nintendo kontsola bat
salgai. 2 mando, 100 joku.
☎ 76 38 71 (Igor).

LANA

Mate, fisika eta kimika kla-
seak. ☎ 76 70 40.

Haurrak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko neska bat
behar da. ☎ 76 05 80.

Etxe amueblatua alokai-
ruan Koldo Eleizalden.
☎ 76 56 02 (eguerdiz).

Bikientzako ume
kotxeak eta saskiak salgai.
☎ 76 06 04.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Enpresaritzan diploma-
tuak OHoko klaseak ema-
ten ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

Pisua salgai herri-erdian.
☎ 76 25 31.

Ford Orion (25.000 Km)
eta Lada Niva (55.000) ko-
txeak salgai. ☎ 76 39 93.

Lanak ordenadorez pasa-
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).


Etxeko lanak egin edo
haurrak zainduko nituzke.
Esperientzia. ☎ 76 70 15
(Betatik aurrera).

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09



“Baserri giroko familia batean, maiorazkoa dela eta, sortzen diren gora-beherak kontatzen dira”

“Umore puntu batekin egin nahi genuen, baina errealista errodatu dugu eta gogor samarra geratu zaigu”

ASIER ALTUNA “KIXI”, ZINEGILEA

“Gaur egun produktoreek errealizadore gazteengan sinesten dute”

Andoaingo Zine eta Bideo eskolan ikasi ondoren, telebistan eta zinean lan egin du azken urteetan elektriko moduan. Medem, La Cuadrilla edota Calparsoren aginduetara ibili da eta aste honetan bertan Emilio Martinez Lazoren pelikula berria hasi da. Orain dela gutxi, ordea, bere lehen laburmetraia zuzendu du, Txotx izenekoa, Telmo Esnalekin batera.



Aieteko sagardotegi izandako baserri batean errodatu dute.

- Ze kontatzen duzu laburmetraian?

- Baserri giroko familia batean, maiorazkoa dela eta, sortzen diren gora-beherak kontatzen dira. Lau laguneko familia bat da, gurasoak eta bi seme, eta sagardotegi batean girotuta dago. Donostiako sagardotegi izandako batean, Aieten, errodatu dugu. Aktore lanean, Pako Sagarazazu, Kandido Uranga eta Mikel Laskurain ibili dira besteak beste.

- Nolakoa da?

- Historia gogorra da, baina umore puntu batekin egin nahi genuen, umore beltza, disparate bat. Hala ere, oso errealista errodatu dugu eta

uste dut gogor samarra geratu zaigula. Irudiak errodatu eta montatu ditugu, baina soinua eta musika sartu behar dira orain. Musika originala Bingen Mendizabalek egin du.

- Euskaraz errodatu duzue?

- Bai, euskaraz eman da eta azpituloak erdaraz jarriko dizkiogu. Protagonistak baserriarrek direnez, sinesgarritasunagatik, logikoa zen euskaraz egitea. Bestalde, euskaldunak gara, orduan, euskaraz egin eta kitto!

- Aurrekontua zenbatekoa izan da?

- Bederatzi milioi pezetakoa. Euskal Mediak bi milioiko laguntza eman digu eta Txepe Lara iruindarrak ekoiztu du.

- Non erakutsiko da?

- Laburmetraiek zirkuito txikia dute. Garai batean pelikulen aurretik kortoak emateko ohitura zegoen, baina gaur egun ez; Madrilen gehiago, baina hemen ez. Hala ere, gaur egun telebistan gehiago ematen dira eta lehiaketak ere badaude. Laburmetraiak ikasteko dira. Gidoi on bat eduki

dezakezu, baina errodatzeko hasten zarenean gauzak konplikatu egiten zaizkizu eta arazo ugari sortzen zaizkizu. Zinea egitea konplikatu da eta laburmetraiak egitea oso baliagarria da ikasteko.

- Fresnadillo kanariarraren korto bat Oskarretarako izendatu dute...

- Bai, baina 20 milioi pezetako aurrekontua zuen. Diru horrekin gure Txotx ere aldatuko litzateke, eta beharbada Oskarretarako izendatuko lukete, eta gu geu ere gizendu egingo ginatke...(barrez). Hala ere, dirua ez da gutzia.

- Gaur egun Estatu egiten den zinea gustoko duzu?

- Julio Medem asko gustatzen zait. Azkenaldian ikusi ditudan pelikulen artean, *Tierra eta Tesis* aipatuko nitzuke.

- Zuzendari gazteak gogor datoz.

- Azken urteetan asko aldatu dira kontuak. Lehen betiko laurak ziren pelikulak egiten zituztenak eta eurek jasotzen zituzten dirulaguntza guttiak. Gaur egun, produktoreek errealizadore gazteengan sinesten dute.


1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	47	18	90	32
2. ERROTAGAIN	43	18	80	31
3. JAUJA OH ZEREZOS	33	16	54	39
4. BAR CANALEJAS	32	17	60	47
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	23	17	68	62
6. OGIZUN	19	17	43	68
7. ORTZI	18	17	38	57
8. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	17	61	42
9. AZPEITXI JATETXEA	17	17	56	58
10. PAGOMENDI	17	17	40	55
11. MADURA INDUSTRIAS GOI	14	17	43	75
12. MONGATXURRA	14	15	40	55
13. UFALA	8	16	33	50

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ETXAGI	33	17	62	56
2. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	18	63	46
3. KAYAK OS JARDINEIROS	32	18	77	48
4. HALTZARI	29	18	54	41
5. LA JUVE	27	18	67	45
6. AGIÑASPI	24	18	51	56
7. ERI	23	17	53	51
8. SOROPOTROAK	22	17	43	41
9. EZINLEIKE	22	18	55	62
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	21	17	54	52
11. INDARGORRI	17	18	44	98
12. AUTOBEREZI	16	17	44	87
13. UVE BIKOITZA JAM	0	0	0	0

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	42	18	78	35
2. FAC	40	18	85	41
3. PJS	35	18	73	43
4. NEKROFIKOS	30	17	64	62
5. JAKINA PATXARAN TEAM	30	19	76	55
6. TXIPIRON	29	17	51	37
7. NAHIKARI HOOLIGANS	27	19	62	54
8. MOSKIS	21	17	55	33
9. EH BITERRAK	16	17	40	58
10. IGANDEKOAK	15	17	38	67
11. GANBARA	13	18	58	73
12. MRW	11	17	57	65
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	17	35	92

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	51	17	127	23
2. ARBE KIROLAK	44	18	100	39
3. ETENGABE	35	18	55	39
4. SLO	31	17	65	26
5. MATXAKATEGI	26	17	62	39
6. XURRUPAK	24	16	37	59
7. KOMANDO PIPERRAK	22	18	59	84
8. PANORAMIX	17	17	60	61
9. AMILOTX	16	18	39	64
10. PATA NEGRA	15	17	38	102
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	17	39	85
12. ALDOKA MALDOKA	9	18	38	64
13. OSINTXU	0	0	0	0
14. PITTIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Asier Azkarate

GANBARA

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Oso gaizki gabiltza, oso jokalaria gutxi gaudelako. Askotan jokalaria bat gutxiago joaten gara eta horrela ezin da.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Bat gutxiago joaten garenean jartzen dugun gogoia, eta txarrena guztiok joaten garenean bakoitza bere aldetik ibiltzen dela.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Berdin zait.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Guadalest.

JOKALARIRIK ONENA?

Fernando Salinero.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Soropotroak taldeari 14 eta 1.

ETA JASOTAKOAZ?

Angiozarrek 15 eta 0 sartu zigun.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Maila mantentzea.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Alfonso.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis.

EUSKAL HERRIKOAZ?

Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Kaneloiak.

EMAITZAK

ORTZI-JAUJA OH ZEREZOS	3-2
BAR CANALEJAS-AZPEITXI JATETXEA	1-5
PAGOMENDI-ERROTAGAIN	1-1
MONGATXURRA-MADURA INDUSTRIAS GOI	1-3
OGIZUN-A ZE FLAXA ETXAGI	2-5
AGIÑASPI-HALTZARI	3-3
SOROPOTROAK-LA JUVE	0-6
AGIRREBEÑA JATETXEA-ERI	7-3
AGIÑASPI-ARTUSAMAK	3-1
EZINLEIKE-INDARGORRI	4-6
AUTOBEREZI-ETXAGI	3-4
KAYAK OS JARDINEIROS-HALTZARI	1-2
IGANDEKOAK-PJS	2-9
GANBARA-PATXARAN TEAM	2-8
NAHIKARI HOOLIGANS-FAC	2-2
EH BITERRAK-TXIPIRON	2-2
MRW-MOSKIS	4-4
GUADALEST-NEKROFIKOS	3-5
NAHIKARI HOOLIGANS-GANBARA	1-4
KOMANDO PIPERRAK-AMILOTX	6-3
PANORAMIX-ARBE KIROLAK	1-1
ETENGABE-ALDOKA MALDOKA	2-2
MANITOU-PATA NEGRA	12-0
SLO-MATXAKATEGI	6-0

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: ARBE KIROLAK-AMILOTX • KOMANDO PIPERRAK
10:00: KOMANDO PIPERRAK-ETENGABE • AMILOTX
11:00: PATXARAN TEAM-FAC • ETENGABE
12:00: NAHIKARI HOOLIGANS-NEKROFIKOS • FAC
13:00: MONGATXURRA-JAUJA OH ZEREZOS • NEKROFIKOS

Domekan barruan

09:00: AUTOBEREZI-ERI • SOROPOTROAK
10:00: SOROPOTROAK-AGIRREBEÑA JATETXEA • AGIÑASPI
11:00: AGIÑASPI-LA JUVE • HALTZARI
12:00: EZINLEIKE-HALTZARI • LA JUVE
13:00: PAGOMENDI-A ZE FLAXA ETXAGI • EZINLEIKE
16:00: OGIZUN-BAR CANALEJAS • MONGATXURRA
17:00: MONGATXURRA-AZPEITXI JATETXEA • BAR CANALEJAS
18:00: ARLOTEAK-MADURA INDUSTRIAS GOI • AZPEITXI
19:00: JAUJA OH ZEREZOS-UFALA • MADURA IND. GOI
20:00: BILDURBAREK OPEL/LAM-ORTZI • UFALA

Domekan kanpoan

09:00: CONSTRUCCIONES BERGARA-TXIPIRON • ALDOKA
10:00: KOMANDO PIPERRAK-ALDOKA MALDOKA • TXIPIRON
11:00: SLO-PATA NEGRA • PANORAMIX
12:00: PANORAMIX-MATXAKATEGI • PATA NEGRA
13:00: ARBE KIROLAK-POLIDEPORTIVO • MATXAKATEGI
16:00: MANITOU-XURRUPAK • IGANDEKOAK
17:00: IGANDEKOAK-MRW • MANITOU
18:00: GUADALEST-PJS • MRW

OHARRAK

TXAPELKETA AURRERA DOA ETA PARTIDU GUZTIAK JOKATZEKO EGUNIK GERATZEN EZ DENEZ, AURRERANTZEAN GUZTIEK ASTERO JOKATUKO DUTE, DUTXATZEKO ALDAGELARIK EGON EZ ARREN. BESTALDE, ANTOLAKETA BATZORDEAK MOSKIS ETA NEKROFIKOS TALDEEI JAKINARAZI DIE BEHAR DEN MODUAN ARBITRATZEN EZ BADUTE, TXAPELKETATIK KANPORATUAK IZANGO DIRELA.

TXINPARTAK**Piraguismo karneta**

Beti Busti piraguismo elkarteak aurtengo kirol fitxak ateratzeko epea zabalik dagoela jafkinarazi du. Turismo nautikoaren karnetak 5.000 pta. balio ditu; federatu karnetak, berriz, 10.000 pta. Dirua Euskadiko Kutzak Matxiategin duen bulegoan sartu behar da.

Ariznoa gimnasia taldea Antzuolan

Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak erakustaldia eskeiniko du domekan 12:30etan Antzuolako frontoian.

Aranzabalen gola

Agustin Aranzabalek lehen gola sartu zuen ligan joan zen zapatuan Deportivoren kontra Anoetan. Hori dela eta, bi txuleta eta Errioxako bi botaila ardo erreserbakoak jasoko ditu Toki Ederreko Eroslek emanak.

Muruamendiraz, Gutierrez eta Martin, Bergara Hiria Txapelketan

Bergarako Udalak eta BKEko pilota sailak Bergara Hiria torneoa antolatu dute lehen mailako afizionatu eta promesentzat. Torneoa asteartean hasi zen eta Pazkuetan bukatuko da. Maila bakoitzean 8 bikote izango dira eta partiduak astearte eta ostegunetan arratsaldeko 7:30etan jokatu dira Udal Pilotalekuan. Apirilaren 22ra arte final zortzirenak jokatu dira eta ondoren final laurdenak hasiko dira. Txapelketaren finalerdiak apirilaren 29an eta maiatzaren 6an jokatu dira. Finalaren eguna, berriz, ez dago zehaztuta, oraindik ETBekin harremanetan baitaude.

Pilotari bergararrei dago kienez, txapelketan afizionatu mailan, Iker Muruamendiarazek Galarzarekin jokatu du apirilaren 15an. Promesa mailan, berriz, Igor Gutierrezek Olaizolarekin irabazi zuen joan zen asteartean eta Martinek Sukiarekin batera apirilaren 22an jokatu du.



Gallastegitarrek irabazi dute Kirol Zerbitzuaren binakako txapelketa.

Lehiaketa sistema aldatu egingo da

Aurtengo txapelketan antolatzaileek lehiaketa-sistema aldatu egin dute eta ondoriz, beste urte batzuetako Pentecostes torneoa ez da jokatu. Iaz De Luz-Apezetxea bikoteak irabazi zuen txapelketa eta ez dago faboritorik txapelketa irabazteko. Izan ere antolatzaileek txapelketa erakargarriagoa egiteko bikote orekatuak egin dituzte.

Bestalde, Gallastegi aita-semeak irabazi zuten Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako eskuz binakako txapelketaren finala Etxaide eta Iruretaren aurrean. Hirugarren postuan Osa eta Muruamendiaraz sailkatu ziren eta laugarren postuan Larrañaga eta Etxeberria. Partidu ostean sari banaketa ekitaldia egin zen eta bertan Alvaro Esparza zinegotziak eta Iñaki Ugarteburu Udal Kirol teknikariak parte hartu zuten.

**Txakur leren IV. lasterketa jokatu da domekan Gorlan**

Domekan jokatu da txakur leren lasterketaren laugarren edizioa Gorlako inguruetan. Goizeko 11etan emango zaio hasiera eta 50 parte hartzaile espero dira. Zirkuitoa beste urte batzuetako berbera izango da, 9,5 kilometrokoa, eta parte hartzaileen artean azken bi edizioetan irabazi duen Goio del Real madrildarra izango da. Lerak minutu bateko edo bi minutuko tartear irtenko dira eta Axen Garitano bergararrak proba antolatzeaz gain, lasterketan parte hartuko du.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Beti Gazte**

Preferente maila
Domeka. 16:45.
Ipintza futbol zelaia.

**NESKEN 3. FUTBITO
TXAPELKETA**

◆ **PWA-Burdinezko Damak**

Zapatua. 12:00.
Miguel Altuna.

◆ **Power-Potzu**

Zapatua. 16:00.
Miguel Altuna.

◆ **Gu Geu-LTB**

Zapatua. 16:00.
Miguel Altuna.

◆ **The Hurricanes-Nahikari**

Zapatua. 17:00.
Miguel Altuna.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Beasaingo**

Kadete mutilak.
Zapatua. 16:15.
Kiroldegia.

◆ **Iraundi Bergara-Usurbil**

Senior mutilak.
Zapatua. 17:30.
Kiroldegia.

◆ **Bergara-Ordizia**

Jubenil mutilak.
Zapatua. 19:00.
Kiroldegia.

PILOTA

Deba Arroa txapelketako
finalerdiak. Itzulerako partiduak.

◆ **Bergara-Soraluze**

Kadete eta senior mailak.

◆ **Bergara-Elgeta**

Junior maila.
Eguakitza. 20:00.
Udal Pilotalekua.

Aitor Delariberette

Munduko snow-board txapelketan

Aitor Delariberette Finlandian jokatu diren munduko gazteen mailako snow-board txapelketan izan da. Kirolemaitza onik ez du lortu, baina esperientzia ahaztezina bizi izan du txapelketak iraun duen astebetean.

- Ze probatan aritu zinen?

- Eslalon dual proban parte hartu nuen. Modalitate horretan lehenengo txandan bata bestearen kontra aritzen gara, baina 16 denbora onenak sailkatzen dira. Hortik aurrera, kanporaketa sistemaz jokutzen da. 20. denbora onena egin nuen, baina ate bat pasatu barik utzi omen nuen epaileen ustez eta deskalifikatu egin ninduten.

- Astebetean zer egin zenuen?

- Bakarrik 6 lagun joan ginen eta entrenatzeko materialik ez genuenez kanadiarrekin entrenatzen genuen. Kuusamo herriko Ruka gunean izan ginen eta hortik gertuen zegoen herria 30 minutura zegoen. Astebete Astunen egotea moduan izan zen. Halere, eski pistak arratsaldeko 8etan ixten zituzten eta eguna eskia-tzen pasatzen genuen. Gaez, diskoteka bat zegoen eta batez ere kanadiarrekin izan nuen harremanik onena.

- Mundu osoko jendea ikusiko zenuen. Zeintzuk harritu zintuzten gehien?

- Amerikarrak oso espektakularrak dira. Txa-

pelketaren hasieran Olinpiadetan moduan desfilea egin genuen eta estatubatuarrek euren arropa, bandera eta abarrekin irten ziren eta gu, lau katu, Spain jartzen zuen kartel-txo batekin irten ginen...


- Zelakoa da Finlandia?

- Ez dago mendirik, dena lau laua da eta elurrez beteta dago. Gu geunden tokian 400 metroko menditxo bat dago, baina beste guztia laua da. Gainera haizeak ere oso gogor jotzen du eta hotz handia egiten du. Jateko orduan ere oso ez-

berdinak dira; haragiari espezie gehiegi botatzen diote eta arrain asko jaten dute. Bestela, finlandiarrek oso jatorrak dira, duten hizkuntza ulertzea oso zaila den arren. Eguraldia oso aldakorra da, eguzkia egiten du, baina momentuan elurra egiten hasten da. Euria, berriz, ez du ia inoiz egiten.

- Orain ze proba daukazu?

- Espainiako junior txapelketa daukat Boi Taulen eta Baqueira Bereten Open txapelketan parte hartzeko asmoa daukat.



Munduko snow-board txapelketa batera joan den lehen bergararra da.

“Finlandiatik etorri, eta Espainiako txapelketa dut orain Boi Taulen”



Argazkia: Imanol Iriagarai

Institutuan, orain dela 16 bat urte

Ipintza Institutuak 25 urte bete ditu egun hauetan. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldia antolatu ziren Aste Santu aurretik eta, horien artean, institutuko ikasle eta irakasle izan direnak agertzen diren argazkien erakusketa. Goikoak, orain dela 16 bat urte BBBko 3. mailan zeudenak dira. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak goiko ilaratik hasita. Ezkerretik eskumara:

Zutik: Itziar Juldain, Eli Dulanto, Maria Eugenia Poza, Irune Payros, Ane Guenaga, Mari karmen Zelaia, Agurtzane Atorrasagasti eta Amaia Aranzabal.

Erdiko ilaran: Olatz Arregi, Inmaculada Zabaleta, Luis Jabier Martinez eta Agurtzane Olabarria.

Aurrealdean: Mari Karmen (gimnasia irakaslea), Alicia Urrutia, Bego Urzelai, Idoia Retegi, Idoia Urzelai eta Arantzazu Uribecheberria.

Aurre-aurrean: Marijo Orbea eta Juan Mari Vicente.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Bolintxo

OKINDEGIA

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha Telefonoa 76.01.26

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmentxu



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Bainugelak, zeramika eta sukaldeak.

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.

Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukaldeko altzariak